

2020-2021 IKASTURTEA

2020-2021 ikasturteko AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROAK betiko formatuan gauzatuko dira. Beti ere, eta COVID19-a dela eta, segurtasun neurri guztiak jarraituz eta desinfekzio pausu guztiak betez.

- **Atal Teorikoak 150 ordu.** 12 ikastaroetan (12 asteburutan) banatuta. Asistentzia %100ekoa izan beharko da
- **Atal Praktikoak 160 ordu.** Atal teorikoa amaitutakoan gauzatuko da, Aisialdiko Talde, Elkarre baten ekintzetan edota udalekuetan parte hartuz.

Bestalde, Covid19-a dela eta, ikasturtean zehar berriro ere “alarma egoeran” sartuko bagina, ordu kopuruaren %30a ON-LINE gauzatuko litzateke. Beti ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren oniritzia izan eta gero.

Atal teorikoaren hamabi ikastaroetan beraz, hurrengo segurtasun neurriak eta infekzio pausuak beteko ditugu:

- Ikastaro osoan zehar musukoa jarrita izango dugu. Ikasle bakoitzak bere musukoa ekarriko du.
- Sarreran:
 - Banakako gorputz-tenperatura hartuko da
 - Eskuak, gelarekin garbituko ditugu
 - Ikasleak banaka sartuko dira ikastaroa egingo den gunera.
- Ikastaroan zehar:
 - Ikasle bakoitzak leku finko bat izango du eta ez da lekuz aldatuko. Ikasleen arteko distantzia gutxienez 1,5 metrotakoa izango da.
 - Ikastaroaren gunetik irten eta sartzen garen bakoitzean eskuak gelarekin garbituko ditugu.
 - Ikastaroaren gunetik irteten garen bakoitzean, bakoitzak bere aulkia eta mahaia, hau da, bere gunea desinfektatuko du.
 - Dinamikaren bat gauzatzeko, beste gelaren bat edota kalera bagoaz, ikasgelara berriro sartzen garenean, banaka sartu eta eskuak desinfektatu egingo ditugu.
 - Komunera, banaka joan beharko dira. Ikasgelan berriro sartzen direnean, eskuak gelarekin desinfektatu beharko dituzte.
 - Ikasle guztiak kanpoan daudenean ikasgelako leiho guztiak eta ate guztiak zabalik gelditzen direla ziurtatuko dugu. Beti ere, ikasgela aireztatzeko.

Aipatutako segurtasun- neurri eta desinfekzioetarako beharrezko materiala GAZTETXO ESKOLAK eramango du.